

«Diskoa merke saldu nahi genuen, denentzat eskuragarri izan zedin»

Azaroan aurkeztu zuen "Bizitza" izeneko lehen diskoa Surfin Kaos talde donostiarrak. Geroztik han eta hemen eman dituzte kontzertuak. Koldo Soret taldeko gitarra eta abeslari intxaurrondotarrarekin aritu gara solasean, Intxaurrondoko gaztetxean duten lokalean; garai batean OHOk 8. maila ikasi zuen gela berean.

Orreaga Aranburu

Gaztea izan arren, gauza asko egin dituzu, talde askotan ibili zara,

15 urterekin hasi nuen musika ibilbidea Euripean Sua taldean. Utikan-en ere hasi nintzen, ondoren. Euripean Sua utzi eta Mugatik sortu genuen. Mugatik utzi genuenean, Utikan-ekin jarraitu nuen eta, azken diskoa grabatu ondoren, Lau Itzal-en hasi nintzen. Guztira, zortzi disko kaleratu ditut. Urte asko pasatu ditut josten; egunero, klasetik edo lanetik atera ondoren entseatuz. Bi taldetan batera aritzeak ere lan handia eskatzen du.

Nola sortu zen Surfin Kaos?

Euripean Sua taldean nengoenean, Ibon Etxebeste (bateria) eta David Gil (baxua) Gurutze Beltzak-en ari ziren. Askotan aritzen ginen elkarrekin eta, ondorioz, harremana sortu zen gure artean. David, Ibon eta hirurok denborapasarako elkartzen hasi ginen, eta kantu batzuk sortu genituen. Nik banituen zenbait ideia

buruan eta, denborapasan elkartu beharrean, zerbait egitea proposatu nien beste biei. Azkenean, duela bi urte, talde gisa hasi ginen.

Eta taldearen izena?

Behin, talde gisa hasi aurretik, Ibon eta biok olatuak hartzen ari ginen Groseko hondartzan, taularik gabe. Sekulako olatuak zeuden, eta itsasoak barrualdera eramaten gintuen;

handi
d i k
atera
be-
har



Aintzane



“Espainiatik sekulako manipulazioa egiten dute euskal taldeen kontra”

genuela esan nuen. Atera, atera ginen, baina Ibon ia-ia ito egin zitzaigun... Horri buruz abesti bat egin genuen, eta hortik dator taldearen izena. Izena esan bezala idazten da, g-rik gabe, talde euskalduna gara eta.

Mugatik, Utikan, Lau Itzal... Surfin Kaos-ek ba al du loturarik aurreko taldeekin?

Normalean, kantuak nik sortu eta hiru-

ron artean moldatzen ditugu. Urte luzez aritu naiz beste talde batzuetan, eta normala da Surfin Kaos-en musikak haien eragina izatea.

Zuk egiten dituzu letrak. Zein gai lantzen dituzu?

Gai nagusia, diskoaren izenak dioen bezala, bizitza da. Bizitzarekin lotutako gauzak kontatzen ditugu: gaua nola sentitzen dugun, sexua, gizartea, oroitzeak... Sentimenduei buruz aritzen gara, baina ez maitasunari lotuta.

Azaroan aurkeztu zenuten "Bizitza" lehen diskoa, Egiako Bukowski tabernan. Geroztik han eta hemen ibili zarete. Brasilen ere izan zarete. Nolatan?

Aurretik eginda genituen kontaktuekin zorte handia izan dugu eta kontzertu dexente eman ditugu. Brasilgoari dagokionez, berez, oportetara joan behar genuen. Urtero Euskal Herritik gertu joaten ginen oportetara: musika jaialdietara, esaterako. Bestelako zerbait egiteko gogo genuenez, Brasilerara joatea pentsatu genuen. Eta bidaiari probetxua ateratzea eta bertan jotzea bururatu zitzaigun. Lagun batek zortzi urte pasatu zituen Brasilen eta harremana zuen bertako produktore batekin; gure konpaktua bidali zion eta berak hiru kontzertu lortu zitzaizkion.

Zeuek ekotzi duzue diskoa. Zergatik?

Alde batetik, hasieran maketa ateratzeko asmoa genuelako eta ez genuelako disketxeetara jo. Bestalde, diskoa merke saldu nahi genuelako. Izan ere, gaur egun zenbait diskok prezio lotsagarria dute. Gutxi saltzen dela diote, baina kontua da garestiegiak direla. Guk badakigu ez garelako musikaz biziko. Beraz, nahiago dugu merke saldu, guztientzat eskuragarri izan dadin.

Nolakoa izan da grabazio prozesua?

Oso azkar grabatu genuen. Normalean, jendeak hilabete behar izaten du diskoa grabatzeko; guk lau egunetan egin genuen. Ez genuen grabazio pisutsua egin nahi. Egunduean batera grabatu genuen; hurrengoan, baxua; hirugarrenean, gitarra eta azkenik, ahotsa. Ondoren, bi egunetan nahastu genuen dena.

"Bizitza" izeneko bideoklipa ere sartu duzue diskoan. Zer ikus dezakegu bertan?

Egia esan, bat-bateko kontua izan zen. Hasieran, lehen kontzertuko irudiak sartu behar genituen. Diskoa grabatutakoan, emaitza ona zela ikusita, beste irudi batzuk sartzea eta bideo-klip osatuagoa egitea proposatu zigun Iñaki Beraetxek. Gure udara kontatu dugu; lokalean, Groseko hondartzan biluzik surfean, Zurriolako Kebap-en, eta lagun baten etxean egindako festa antzeko batean grabatu genituen irudiak. Iñaki eta Xabier Beraetxek laguntza handia eman digute.

Nolakoa harrera izan duzue?


Espero ez bezalako harrera izan dugu; jendeak diskoa entzuteko gogo handia erakutsi du, irratian jartzen ari dira, telebistan ere bideoklipa ikus daiteke... Hala ere, 500 diskoko tirada egin dugu eta 100 besterik ez ditugu saldu. Izan ere, lagun asko datozkigu eta hajei, saldu beharrean, oparitu egiten diegu. Disko hauek ezin dira dendetan saldu. Beraz, taberna eta kontzertuetan saltzen ditugu.

Larunbatean Egiako Gazteszenan jo zenuten, Ttanttakun irratia-aren festan. Zer moduz?

Sekulakoa izan zen, oso harrera ona egin zigun jendeak.

Egun berean, Euskal Herriko beste talde batek, Berri Txarrak-ek, kontzertua zuen Madrilan. Espainiako zenbait talde eta komunikabideren presioaren ondorioz, bertan behera geratu zen emanaldia.

Betiko kontua da. Espainiatik sekulako manipulazioa egiten dute gure kontra, hemengo arazoak erakusteagatik eta euskaraz kantatzeagatik. Lotsagarria da,



Aintzane

euskaraz kantatze hutsagatik, talde bati boikota egitea.

Intxaurrendoko Gaztetxean entsetzen duzue. Donostiako gaztetxe bakarra da, ezta?

Herri txiki askotan Udalaren laguntza izaten dute gaztetxeak izateko. Donostia, berriz, oso *pifoa* da. Guk oraindik ez dugu arazorik izan, erakina ez baita Udalarena. Baina Grosen etxe bat okupatzeko saiakera egin zuten duela urte batzuk eta botá egin zituzten. Hemen Intxaurrendoko Ikastola zegoen lehen OHoko 3. mailatik egon nintzen bertan eta 8. maila gela honetantxe egin nuen. Irakasle batek giltza eman zigun eta okupatu egin genuen.

Zein asmo duzue aurrera begira?

Bi hilabete pasatuko ditugu Euskal Herrian kontzertuak emanez, gaztetxe eta tabernetan. Bien bitartean, abestiak sortuko ditugu. Seguru asko aurten beste disko bat plazaratuko dugu.